

**EUROPAR BATASUNEN NEKAZARITZA POLITIKA
BATERATUAREN ERREFORMA BERRIARI BURUZKO OHAR
KRITIKO BATZUK, IKUSPEGI SOZIAL BATETIK EGINAK**

“1984ren hitz-ostean George Orwellek deskribatzen du bere irudipeneko diktadurak erabilitako prozedurarik eraginkorrena pentsamendu heterodoxo baten garapena oztopatzeko. Urtero, aurrekoa baliogabetzen duen hiztegi berri bat inprimatzen da, eta aurrekoaren ale guztiak suntsitu egiten dira. Edizio bakoitzak aurrekoak baino hitz gutxiago ditu, hots, pentsatzeko era gutxiago. Urterik urte pentsamendua urritu egiten da, garapen libre baterako bere posibilitateak gutxiagotuz. Orwellen diktadura ez da existitzen. Baina galdetu ahal diogu geure buruari ea 1984an mendebaldeko demokraziak ez ote diren helduko antzeko egoera batera. Ez, noski, hitzen kopurua murrizteagatik, egunero neologismoak sortzen ari dira-eta, baizik eta hitzak kateatzeko eta ideien arteko loturarako mekanismoak deuseztatzeagatik, horiek baitira sintesiak eraikitzeak aukera ematen dutenak. Hala balitz, ezarritako ordena ezin liteke, jada, zalantzan jarri, ordena diferente baten ahalbidea eta prozesua irudikatzeko gaitasunik ezagatik. Egonkortasun soziala, hori bai, oso indartua geratuko litzateke.”

Maurice Duverger

Jannus, les deux faces de l' Occident (1972)